



**Izena : OBERON SPACE S.L.L.**

**Helbidea: Parque Tecnológico de Bizkaia, Laga Bidea, Edificio 804-Módulo 113**

**Herria : DERIO**

**Telefonoa : 94 404 92 67**

**E – mail : gbengoa@oberon-space.com**

**Web Orrialdea: www.oberon-space.com**

### **Produktuaren deskripzioa. Zerbitzua.**

OBERON SPACE S.L.L sektore aeroespazialean diharduten ikerlarien talde batetik sortu zen. OBERON SPACE enpresa pribatua da %100ean, eta espazioaren, defentsaren, zientziaren eta telekomunikazioen industri sektoreetan egiten du lan.

Beste arlo batzuetan lan egiteko ahalmena du enpresak hala nola sistemen ingeniartzan, giltza eskuan deritzen produktu berrien garapenean, sistemen integrazioan eta sateliteetarako jokabide-sistemen garapenean.

OBERON-ek ingeniartzita zerbitzuak ematen ditu sektore aeroespazialearako, softwarekoak zein hardwarekoak:

- Softwarea:

1. Sistema espazialen diseinua eta azterketa. Ingurunea moldatzea eta efektuak, simulazio dinamikoak, etab.
2. Hegaldiaren dinamika
  1. Estimazioa
  2. Maniobren eta ibilbideen diseinua
  3. AOCS-ko parametroen zehaztapena
  4. Misioaren plangintza
3. Misioaren azterketa:
  1. Ibilbideen azterketa eta hobekuntza
  2. Orbita ezartzea
  3. Nabigazioa
  4. Dinamika eta kontrola
  5. GNC-ko simulagailuak

- Hardwarea:

1. Jokabidea kontrolatzeko sistemak – CMG
2. Robotika
3. GNC-ren garapena

#### 4. Laser bidezko komunikazioak

Gainera, softwarea zein hardwarea hainbat mailatan garatzeko ahalmena baliatuz (simulazioak, kontrol-sistemak, denbora errealeko SW edo ontziratzea, prototipoen eta entseguen garapen osoa), OBERON SPACEk honako hauek eskaintzen dizkie bezeroei:

- Giltza eskuan izeneko prototipoen garapenak bezeroen zehaztapenen arabera
- Teknologia berrien ikerketa
- I+G maila handiko proiektuen garapena
- Soluzio berritzaileak

Sistemen entseguak.

#### **Merkatuaren deskribapena.**

Oberonen egungo edo balizko gaitasun teknikoen arabera, honako merkatu potentzial hauek zuzendu daitezke:

- Aeroespaziala edo aeronautika (zibila edo militarra)
- Oro har, Oberonen gaitasun teknikoak aplika daitezkeen beste edozein industria, adibidez: energia, automozioa, elektronika, telekomunikazioak.

Ondoko bezero-profil hauek bereiz ditzakegu Oberon Spaceren arlo aeroespazialerako:

- Herri erakunde gehienak: ESA, CDTI.
- Konpainia pribatu handiak: Eutelsat, Hispasat, Astra, etab.
- Prime Contractors (satelite bat espaziora jaurtitzeko misio osoa edo zati bat egiteko ardura duten enpresa handiak); adibidez: Alcatel eta Astrium.
- Moduluko integratzaileak edo fabrikatzaileak, edo Sener, Indra, EADS-etxea enpresak adibidez, proiektua bana daitezkeen oinarrizko moduluetakoa bat fabrikatzeaz arduratzen direnak.
- Ekipoen fabrikatzaileak, moduluen zatiak fabrikatzen dituzte

Oberon Spaceren energiaren arloaren kasuan, ordea, bezerorik gehienak eraikuntzako enpresak edo arkitektoen bulegoak dira.

**Sortzeko urtea.**

2006

**Oraingo langileria.**

9 pertsona.

**Facturazioa.**

216.821,23 €